

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak zerbitzu bat eskaintzen du, OUTFIT-ak egin eta arropa erosteko aukera izatea, beraz bezeroei zerbitzu bat eskaintzen diegu, beraien beharrak eta nahiak bermatuz. Modu horretan etxean daukaten arropari erabilera emango diete eta arroparen bat falta ez gero erosteko aukera eskainiko zaie. Beraz, **balio kualitatiboa** eskaintzen diegu gure bezeroak izango direnei.

Gure APP-ak balioa sortzen duten hainbat elementu barneratzen ditu:

- **Berrikuntza** eskaintzen dugu, orain arte outfit-ak sortu eta arropa erosteko app-a ez da existitzen eta.
- **Lana errazten** dugu, estilo gutxi edo arropak konbinatzeko arazoak dituzten pertsonak ez dute burua nekatuko konbinazioak pentsatzen eta beraien arropari erabilera gehiago emango diete.
- **Prezio** aldetik, bezeroentzako dohainik izango da aplikazioa. Hori bai, luxuzko marken arropa, zapatak eta osagarriak saldu nahi badituzu, kuota bat ordaindu beharko duzu hilabetero, PREMIUM harpidetza izango litzateke.
- **Pertsonalizazioa** eskaintzen dugu, bezero bakoitzak bere arropak kontutan izanda egingo zaizkielako arropa konbinazioak, beraz bakoitzak izango dituen outfit-ak bakarrak izango dira.
- Aplikazioa bezero guztiek erabiltzeko pentsatuta dago, beraz **erabilerraztasuna** eskainiko diegu. Pausu sinple batzuk jarraituz, lortuko dute APPa erabiltzea.
- **Denbora aurrezteko** balio du, beraien denbora eman beharrean konbinazioak pentsatzen, aditua den pertsona batek egingo du lan hori beraien partez. Horrela, denbora hori beste gauza batzuetarako erabili dezakete.